

MAZOKA

MARRAZKI AZOKA  
MERCADO  
DE DIBUJO  
E ILUSTRACIÓN  
ABENDUA/DICIEMBRE  
VITORIA-GASTEIZ  
ARABA  
2021

MAZOKA ONLINE VII. EDICIÓN

40 ILUSTRATZAILEN  
OBRAREN SALMENTA  
[WWW.MAZOKA.ORG](http://WWW.MAZOKA.ORG)  
VENTA DE LA OBRA DE  
40 ILUSTRADORAS E  
ILUSTRADORES

**ERAKUSKETA**  
"HARITIK ZINTZILIK"  
ABENDUAREN 3TIK 26RA  
MONTEHERMOSO KULTURUNEAN

**JARDUERA PARALELOAK**  
TAILERRAK, IKUSKIZUNAK, AURKEZPENAK...  
ABENDUAREN 17AN, 18AN ETA 19AN  
IKUSI EGITARAUA HEMEN: [WWW.MAZOKA.ORG](http://WWW.MAZOKA.ORG)

[WWW.MAZOKA.ORG](http://WWW.MAZOKA.ORG)



**EXPOSICIÓN**  
"COLGANDO DE UN HILO"  
DEL 3 AL 26 DE DICIEMBRE  
EN C. C. MONTEHERMOSO

**ACTIVIDADES PARALELAS**  
TALLERES, ESPECTÁCULOS, PRESENTACIONES...  
EL 17, 18 Y 19 DE DICIEMBRE  
CONSULTA EL PROGRAMA EN [WWW.MAZOKA.ORG](http://WWW.MAZOKA.ORG)

#MAZOKA2021

BABESLEAK / COLABORADORES:



MEDIA PARTNERS:



LAGUNTZAREKIN / PATROCINADO POR:





## **MAZOKAk oihal ilustratuen baso bat sortu du mazokalarien erakusketan, eta marrazketari, jasangarritasunari eta auzoari buruzko jardueren programa bat eskainiko du abenduan gasteizen, herritar guztientzat.**

- » VII. edizioan hautatutako 40 mazokalarien online dende azaroaren 26tik, ostirala, abenduaren 26ra izango dituzte beren leiho birtualak zabalik, [www.mazoka.org](http://www.mazoka.org) helbidean.
- » Maite Gurrutxaga mazokalari ohiak eta Ilustrazioko Euskadi Sariaren irabazleak egin du 2021eko kartela. Kolorez eta jendez beteta dago, eta auzotartasuna eta hurbiltasun-, bizikidetzaz- eta lankidetzaz-balioak irudikatzen ditu.
- » Abenduaren 3an, 19:00etan, “Haritik Zintzilik” erakusketa inauguratuko da, oihal esekiz osatutako mihise luzeak erabilia, eta egileen bigarren katalogoa aurkeztuko da Montehermoso Kulturunean.
- » Mazokak abenduaren 17ko asteburuan berrekingo die jardueri: tailerrak, bisita gidatuak, liburu eta komikien aurkezpenak, musika- eta dantza-emanaldi ilustratuak eta marrazki-potea.

### **MARRAZKETA, ESKU-HARTZE ETA GARAPEN KULTURAL KOMUNITARIO GISA**

Aurten, Mazokak ilustrazioen eta beste diziplina batzuen inguruko jarduerak eskainiko ditu asteburu oso batean. Jarduera horiek urtez urte azokaren alde egiten duen jende leial horri guztiari zuzenduta daude. Opari gisa edo gozatzeko ez ezik, ekintza kultura gisa ez ezik, edonoren eskura dagoen adierazpen modu gisa ere ekarri nahi diegu marrazketa biztanleei.

Krisialdiek egin ohi duten bezala, pandemiak agerian utzi du kultura ezinbestekoa dela banakoentzat eta komunitateentzat. Hori dela eta, mazokalarien online azoka inauguratu ondoren, egitarauko bigarren ardatza auzotartasunaren kontzeptuari buruzkoa izango da. Biztanleek ondo pasatzea nahi da, baina baita adin guztietarako jarduera sortzaileekin interakzioan aritzea ere: tailerrak, aurkezpenak eta bisita gidatuak, ilustrazio inprobisatuko emanaldiak (musika eta ilustrazioa uztartuz, zuzenean hizkuntza propioak eta soinu-soluzioak eta soluzio grafikoak sortzeko) eta dantza-fusioko emanaldi bat (erakusketako oihalen basoa erabilia, baita aparteko espazio baten magia ere: Ur Biltegia).





## **MAZOKAREN VII. EDIZIOKO 40 MAZOKALARIEN LANAREN ERAKUSKETA: “HARITIK ZINTZILIK”**

Abenduaren 3tik aurrera, Montehermoso Kulturuneko Ur Biltegian

Aurten, paper-formatu klasikotik urrunduko gara, eta erakusketak oi-halezko mihiseen baso bat berregingo du. Baso horretan, erakusketara etortzen direnak obra bakoitzaren historian murgildu ahal izango dira, jolasean aritzeko labirinto bat balitz bezala, ezagutu beharreko auzo bat balitz bezala. Teknika, euskarri eta estilo desberdinak erabiliz egindako 40 lan ikusi ahal izango dira, eta bakoitzak QR kode bat izango du, mazokalari bakoitzaren “postuaz” in situ gozatu ahal izateko.



## **ARTEKO BATXILERGOETAKO ETA ARTE-, DISEINU- ETA ILUSTRAZIO- ESKOLETAKO IKASLEENTZAKO BISITA GIDATUAK**

Abenduan, Naipes Fournier-en Bibat Museora eta Montehermosoko Mazokalarien Erakusketara lagunduko diogu Gasteizko, Barakaldoko, Iruñeko eta Santanderko ilustrazioaren eta artearen etorkizunari.

Ilustrazioak hizkuntza gisa duen garrantzi sozial eta kulturalari buruz ikasiko dugu, eta, bereziki, mendeaz eta zibilizazioez haraindi karteak jolasaren eta marrazkien bidez harremanetan jartzeko eta komunikatzeko dutenari buruz ere.

Ilustrazioaren inguruko estilo eta lanbide ugariak ezagutuko ditugu: piezak, lan-prozesuak, teknika, aplikazioak, diskurtso artistikoa eta mezua aztertuko ditugu.

Ariketa kolektibo bat proposatuko zaie ikasleei Mazokako egileen katalogoaren inguruan.





## TAILERRAK, BISITA GIDATUAK, SINADURAK ETA EMANALDIAK: ABENDUAREN 17TIK 19RA.

Bisita gidatuak egingo ditu kartelaren egile Maite Gurrutxagak “Haritik Zintzilik” erakusketan, abenduaren 17an, ostirala, eta 19an, igandea; horrez gain, 6 eta 99 urte bitartekoentzako sormen-tailerrak egingo dira larunbat goizean, “Bizilagun ezagun ezezagun hori” izenekoak, gizartean bizi direnak zaintzearen eta haien inguruko kezkaren inguruan.

Abenduaren 18an, larunbata, euskal ilustratzaileei egindako elkarrizketen Dibujo desde que tengo Memoria liburuarekin eta Tupust komiki euskaldunarekin erlazionatutako mahai-inguruak eta aurkezpenak izango dira, baita egileen sinadura-saioa ere: Maite Gurrutxaga, Yolanda Mosquera, Loinaz Lekuona, Maitane Gartziandia Agirrezabala, Paula Estévez eta Katarzyna Lebidzinska.

Egunari amaiera emateko, “Ilustraciones Improvisadas” kontzertu bat izango da: izaera parte-hartzaileko esperientzia artistikoko saio horretan, Itziar Madariaga musikaria eta Bea Aparicio eta Jan Orduña ilustratzaileak modu inprobisatuan arituko dira interakzioan, eta, elkarrekin, espazio murgiltzaile bat sortuko dute. Espazio horretan, musikaren eta irudiaren bidez (argi-itzalen joko hipnotiko batekin), parte-hartzaileek hausnarketak partekatuko dituzte gaur egun garrantzi berezia duten gai globalei buruz; besteak beste, krisi klimatikoa.

Eta amaiera bikaina emateko, igande goizean, Askoa Etxebarrieta “La Pulga” flamenko-dantzari gasteiztarrak emanaldi bat eskainiko digu, eta jendeak marraztu ahal izango du, esperientziaz eta fusioan oinarrituta, Ur Biltegiaren moduko eremu berezi baten magia eta sonoritatea aprobetxatuta. Mazokarien obrekin egindako oihal esekien basoarekin interakzioan ere jardungo da, mugituz, dantzatuz eta gidaritzapean ibiliz.

Informazio gehiago lortzeko eta abenduaren 3tik aurrera izena emateko, joan [www.mazoka.org](http://www.mazoka.org) helbidera





## #MAZOKA2021 EDIZIOKO ILUSTRATZAILE GONBIDATUA: MAITE

### GURRUTXAGA

40 mazokalariez gain, VII. edizioko artista gonbidatu nagusia eskal ilustratzaile bat izango da oraingoan ere, eta, haren obraren inguruan eta omenaldi gisa, ANUSKA GRAPHIC diseinu-estudioak identitate bisual osoa sortu du, zeinak sari eta aintzatespen ugari jaso dituen haren estilo grafikoa auzotartasun-, hurbiltasun-, bizikidetzeta- eta lankidetzeta-balioekin konbinatzen baitu.

Maite Gurrutxagak (Amezketeta, Gipuzkoa, 1983) ibilbide bikaina izan du, eta, horregatik, Ilustrazioko Euskadi Saria irabazi du. Zortedunak gu, 2018an mazokalari gisa izan genuelako.

2008an hasi zen ilustratzen. Orduz geroztik, haur, gazte eta helduentzat ilustratu du. Beste euskarri batzuetan ere aplikatu du ilustrazioa; besteak beste, kartelak, agendak, prentsa, kartak, aplikazioak eta horma-irudiak.

Urteotan, hainbat sari eman dizkiote bere lanengatik; esaterako, Literaturako Euskadi Saria 2014an, Literatur Lanen Ilustrazioaren kategorian, Habiak / Nidos komikiarengatik; eta Album Ilustratuen Lazarillo Saria 2015ean, Martín proiektuagatik (testua: Alaine Agirre). Haren lana behin baino gehiagotan hautatu da Bratislavako Ilustrazioko Bienalean (2013, 2017 eta 2019) eta Illustrating life Beijing-en (2017 eta 2019) parte hartzeko.



40 ILUSTRATZAILEREN OBRAREN SALMENTA

**MAZOKA ONLINE VII.** EDIZIOA  
EDICIÓN

VENTA DE LA OBRA DE 40  
ILUSTRADORAS E ILUSTRADORES



**ERAKUSKETA**   
"HARITIK ZINTZILIK"  
ABENDUAREN 3TIK 26RA  
MONTEHERMOSO KULTURUNEAN

**EXPOSICIÓN**   
"COLGANDO DE UN HILO"  
DEL 3 AL 26 DE DICIEMBRE  
EN C. C. MONTEHERMOSO

**JARDUERA  
PARALELOAK**  
TAILERRAK, IKUSKIZUNAK,  
AURKEZPENAK...  
ABENDUAREN 17AN, 18AN ETA 19AN EL 17, 18 Y 19 DE DICIEMBRE

**ACTIVIDADES  
PARALELAS**  
TALLERES, ESPECTÁCULOS,  
PRESENTACIONES...

#MAZOKA2021

[WWW.MAZOKA.ORG](http://WWW.MAZOKA.ORG)